

ORVINA GARAILE, ADIN EZBERDINETAKO ARRANO ELKARTEKO II. XAKE TXAPELKETAN.

Orvina taldea izan da garaile Adin ezberdinetako Arrano Elkarteko II. Xake Txapelketan. Horrela, iazko garaipena errepikatu du.

Sei taldek parte hartu dute 2006.go maiatzaren 13an, Arrano Elkartearen egoitzan, jolastutako Xake Txapelketa honetan: Maristas, Gazte Berriak, Zizur Ardoy, Orvina, Amaiur A eta Amaiur B. 25 minutuko partidak izan dira.

Neurketa bakoitza 4 taulatan jolasten zen. Lehenengo taulakoak 14 urtez azpiko jokalaria izan behar zuen; bigarren taulakoak, 12 urtez azpikoa; hirugarren taulakoak, 10 urtez azpikoa; laugarren taulakoak, 8 urtez azpikoa. Taula bakoitzean adin horretako ordezeko jokalariek ere parte har zezaketen.

Bigarren ihardunaldian, Orvinaren garaipena mamitzen hasi zen, Amaiur B taldeari 2'5-1'5 egin ondoren. Laugarren ihardunaldian, abantaila 2 puntutara handitu zuen, Aitor Floresek Gazte Berriak taldeko Pello Garcíaren aurka galdu ondoren, Azkeneko ihardunaldian, Amaiur Bk berdindu zuen (2-2) Zizur Ardoy taldearekin eta abantaila handi samarra (4 puntukoa) bihurtu zen bi talderik onenen artean.

Amaiurrek bere bi taldeen artean indarra orekatu zuen eta bere kalterako izan zen. Hala ere, edozein modutan, nahiko zaila izanen zuen Orvinaren aurrean, Orvinak harrobia baduela erakutsi baitzuen.

Amaiur A taldea hirugarren izan zen eta trofeoa bereganatu zuen, lehenengo bi taldeek bezala. Laugarren, bosgarren eta seigarren postuetan Zizur Ardoy, Gazte Berriak eta Maristas sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Jokalariei dagokienez, Luis Alberto Jiménez Almeidaren iharduna, Orvinako hirugarren taulan, azpimarragarria izan zen: 5 partidatan, 5 puntu. Emaizta bera atera zuen Ander Ollok, Amaiur B taldeko laugarren taulan. Adrián Ortégak ere partida guztiak irabazi zituen Orvinako lehenengo taulan, baina soilik 3 partida jolastuta.

Datorren urtean errepikatuko da Txapelketa eta agian sona handiko talde historikoak (Oberena eta Paz de Ziganda) ere arituko dira lehia interesgarri honetan.

2006-05-18.

ARRANO ELKARTEKO XAKE TALDEA.

Ordezkarria: JOSEBA OTANO VILLANUEVA. Euskal Naziotasun Aitormena: S6973074A. Helbidea: Antsoaingo errepidea, 13 – 3 ezkerre (Iruñea).